ORRILLA
24
Igandea
Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 urko. iru ile.
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 » »
Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.304 zenbakija

Naparra Gayak

I

Agur euzkotar anaiak, Agur ta erdi.

Bein baño geiagotan adirazi naute bizkaitar adizkide batzuek, zer edo zer, idazteko euskaraz EUZKADI'ko euskal-orian, gura Napara ontatik.

Ementxe naukazute ba, zuek eta nere asmoak gogotik betetzeko, ongi artzen banau egunkari maite onen zuzendariak; ta barkatu utsen bat aurkitzen baduzue nere idazki ontan.

Lendabizi aitortu naidut, euskaldun guzieri, lan au artu dutala geien geiena nere biotza irabazi duelakoz Axuriagera'tar Flabio ta Ardaitz, anai jaunak, azkeneko elkarekin izandeko gure solasetan.

¿Zeiñek ukatu laguntza euzkotar zintzo oieri? Bai, denok, egin bear degu aal dezakeguna gure izkuntzain alde, Axuria'k euzko-azia ixil-ixil erein, eta zabaltzen duen bezala aberi guzian.

Goazen ba, euskararen alde, Napara'ri begira.

Jakiña da, euskera maitea galdu dela eri aunitzetan, edo erakusle, apez, "militar". udatzale. erdaldunangatik. edo euskaldunen beren shabarkeriengatik. Baña, badituagu eritan Jaungoikoa'ri esker, euskeraz ederki egiten dutenak. Ala ere leengo etsai oien gañean, gaur, du gure izkuntza gashoak bertze etsai aundi bat. Au da, "politika".

Egia da, abertzaleen alderdia bakara izan dela euskeran alde begiak idiki daizkotenak geienari. Euzkotar oien lanak eutsi dio dena galdu gabe.

Ta, ¡zer biotz miña! Asmo eta gogo oien ondorea ttipia izan da, zeren politikak itsuturik, eztute artu gure mintzaida bear den maitasun eta berotasunekin: zergaitik izan bazen begiramentu geiago euskerari, elkartuko ziran euskaldunak politika utzita, batzuetan, Estatutoa'ren alde lan egiñez bera zabaltzeko, edo bertze edo-zein aitzakiarekin.

Eta ezta ala izan.

Ikusi ditugu eriak ederki entzun dutenak abertzaleen mintzaldiak, euskera goratuz, baña jakin dut abertzaletasun orengatik badirala euskaldun baserietan erderaz jakin gabe, naiago zutenak erderaz mintzatu euskeraz baño.

¿Zergatik? Abertzaletasuna bertze alderdi bat bezala artu zutelakoz. Au da, politikako alderdia. Ori, agertzen da ederki auteskundeak etortzerakoan, euskaldunak ematean bere autarkia abertzaleen aurka.

Kendu bear dugu Napara'tik politikako kalte aundi ori, eta uratu betiko berak gure artera ekaritako goroto aundia. ¿Nola? Bada Iruña'n "Euskara'ren Adiskideak" deitzen zaion batasuna, politika gabekoa, zeñek naiduen bildu eta elkartu euskaldun guziak, euskera erakutsi eta zabaltzeko emen.

Gañera batasun orek, euskeraz bakarik naidu aunditu bere asmo eta lanak siñesmenaren alde. Ortarako artu du bere gaietan "Katoliko Ekintza" (A. Católica) delakoa ibiltzera. Guri ederki eta ezin obeki iduritzen zaigu egin bear ori.

Nik, oraindik bertze asmo bat ere artuko nuke areri laguntzeko, ta da "Nekatzari'en Bazkunak" egitera Napara'ko euskal-erietan. Bi batza oiek elkartuko lieke afer edo lan aunitzetan, zeren diran euskerai eutsi — Euskal-ikastolak Jesus'en Kurutzearekin ezari-oitura onak zabaldu gure siñesmenak naiduen eran, eta itz batean, euskal-eritako ontasunetan.

Bertze ondoreko idazkietan agiri naidut zerbait bi asmo eder oien buruz.

Ezta utzi bear orengatik, etortzea abertzaleak Napara ontara "Euzko-Gaztedia'ko" eta "Sabin-Etxia'koak" bizkaitar sutsuak, orain arte egiten duten bezala eta berdin Donostia'ko "Euzko-Gaztediak" Baztanen eta bertze eritan ere bai.

Denen indaren begira daude Napartarak. Zuek, bide ortatik Sabin azia zabaltzen, eta guk, "EUSKARAREN ADISKIDEAIKIN", politika guziak ondatu naien gure euskera eta aberia berpiztu eta nagusitzeko.

MENDI-XURI.

Uara.—Aunitz eskeri zere idazkai oretaz. Pozik jasoko ditugu idazlan oek, Euskal-Heria'ko euskara guziak maite baititugu. Euskaldunen beren shabarkeriengatik galdua degu, beraz guziak alegindu bear gera. Ori oek zabalik tuzu, eta eni agindu zaizkidazu.—L.

ABERI-ZIÑOPAK

Ziñoparen bat ixan eztaben aberirik eztago. Euzkadi'k be ixan dauz, eta asko ixan be.

Gauriko egunari yaokazanak, sei dira: Axorabide, Morga, Larabazter, Bizkaigana anayak eta Puente-Urtusaustegi'tar Jon.

Euzko-Aberija'ren ziñopa oneik, 1634 'garen urteko orija'ren goxaldian espe artu ebezan, euren etxietan lo egozala artu be.

Espe artu, eta espetxera ixilian eruan ebezan, eta Morales Korekidoriak Idiakez dukiakin lagunduta, ixilian erijotzarako epatu be.

Oxarabide, Morga ta Puente'tar Jon gau atan bertan urkatu ebezan. Larabazter eta Bizkaigana anayak, bariz urengo egunian, Bilbao'ko Plaza Zara esaten yakan lekuban.

Ona emen orain 302 urte Euzko-Aberi-aldez euren bixitzeak emon ixan ebezan sei bizkatar zintzo, sei abertzale zindo.

EDESTIJA

III Pilipa, España'ko bakalduna ta Bizkai'ko Jauna zan.

Eta onek, Bizkaya'ren erotik Gaztela'ri esnia eruateko, bizkataren bei esnedunari eldu eutsan, eta onen esnia edateko bidia ereztuten asi: bizkatarak gatza saldu ta erosteko euken eskubidia, Gaztela'ri emon egijuela, agindu eban, ba.

Eta bizkatarak, izpidian egozan egon be-ta, ezezkua erantzun eutsen, Bizkai-lagijen kaltezko aginbenik eurak ontzat ezin artu leikela-ta.

Bizkataren ezezkua ta gusti be, baña, 1632'garen urtian, Jauna'ren aginbena argitaldu eben. Bizkatarak, orduban be, aginben aren aurka jagi ziran.

Eta Jauna'ren agindu-aurka jagite aretan, Bizkaya'ren aldezlari zintzuenak eta zinduenak, euren burubak agirijan imiñi ebezan.

Oneik, amabi ixan ziran:

Aulestia, Bizkai-jaurbideko sindikua.

Otxoa eta Oxarabide'tar Marti, Bizkai-jaurbideko idazkarija.

Morga eta Sarabia, lagijak ikasija.
Balendiz, be, lagijak ekixana.
Larabazter'tar Jon, latziñaldarija.
Arauko, be, latziñaldarija.
Armona, jauparija.
Puente eta Urtusaustegi anayak.
Bizkaigana anayak, eta
Txarta, joslia.

Jauna'ren aginbenaren aurka agertu ziran amabi abertzaliak, III Pilipa'ren otseñak ondo zainduten ebezan... Exa-txakur-antzo jaraitzen eutsen, atzipez espetuta eztarijaren suizkilu - aurera eruateko.

Bitartian, 1633'gareneko urtian, abertzaliak batzar bat egin eben, eta erabagi oneik artu: Jauna'ren aginbena bete barik lagatia, ta urteko irabazija ez emotia, berak be Bizkaya'ren lagi zara ez ebala jagon-eta.

Bizkaya'ren areyuak be, baña, urte ber-beraren orija'ko 23'an. batzaldu ziran, eta ordezkari bat Jauna'gana bidaldutia erabagi, Jauna'ri Bizkaya'k gura ebana erakutsi biar yakala-ta.

Eta Bizkai'tik Madrid'eratu zan ordezkarijak, III Pilipa bakaldunaren otseña ixan be-ta, Bizkaya'ren benetako gurari-ordez, bakaldunak entzutia gura ixan eban gustija esan eutsan.

Eta arek, erijak ez erijotzara epatu ebazanak be ezekijela, urkamendira epatu ebazan.

III Pilipa gaztelar bakalduna ta Bizkai'ko Jauna'ren erijotza-epaipian jausi ziran abertzaliak, len atatu ixan doguzan amabi bizkatarak dira.

Amabijotatik seik, Aulestia, Belenditz, Arauko, Armona, Puente-Urtusaustegi anayetatik bat eta Txarta'k, baserikuak lagunduta, iges-egin eben.

Oxarabide, Morga, Puente'tar Jon, Larabazter eta Bizkaigana anayak, baña, ezeben igesik egin, len esan dogun eran, euren etxietan lo egozala, erailtzalien aiztuaren azpijan jausi ziran-eta.

Jazokun au jazo zala, gaur dira urtiak: 302 urte. Ordutik ona iru gixaldi luze igazi ixan diran-aren, be, Euzkadi'ren etoyak eztira amatu, ezta Euzkadi aberijaren ziñopeak gitxitu be.

Koldara, etoya ta azpi-sugea ixan baño, bakotxak bere eskubidiak aldeztutiaren azkenengo odol-tantarañokua ixuritia, onuragarijagua da, baña.

Gaur 302 urte aberi-ziñopa egin ziran abertzaliak eredutzat artuko al doguz. ¡Gora eurak! Goyan begoz.

ABERI-EGUNA

Aurtengua boskaren Aberi-Eguna da.

Eta boskarena dalako, Euzkadi'ko uri ta basuri gustijetan ospatuko da.

Asmo eder au, Euzkadi-Buru-Batzara'rena da. Eta Euzkadi-Buru-Batzara 'rena dalako, euzkotar gustijak ontzat artu ixan dabe.

Beraz, uri ta basuri bakotxak, Aberija'ri onurarik geyen ekariko dautsazan jayak eralduko dauz. Aberi-Eguna ezta, ba, jolaserako bakarik ospatuten dan eguna, Aberija'ri bixitzea joritu, ta abertzale-sendija ugarituteko egiten dana baño.

Euzkerea nausi dan uri ta basurijetan, gure ele matiak leku berezija ixango dau: euzkerazko irakurte ta idazte-txapelketak eta abar.

Euzkel-antzerkixunak antzeztuko dabezan uri ta basurijak be ixango dira. Aberija omenduteko euzkel-antzerkija be on-ona da, ba.

Aberi-Eguna ospatuten ibiltia, Aberija sendotuten ibiltia dala esan dogu. Eta Aberija sendotuteko aberi-elia baño sendogari obarik eztogu idoroko.

Aberi-elia sendotu dagigun, ba, sendotu, ganerantzekua berez sendotuko da-ta.

Uribitarte'tar Ibon.

Gastiei begira

III

ZER EGIN?—Zoro antzera duazan gastien aurera urtetia biarezko da, kaituez zapalduko. Gure elburua eueren elburua baño zinduago da; gure ...tza eurena baño argiago. Gure azkatasuna euren azkatasuna baño zabalago, onurakorago da, eurena baño maitekorago. Gure azkatasuna gaizkalia da, ...nak estutu ta lotu egiten dau; guria goyan oñarituten da; eurena lurian ...nengan; eta gixona goi-bildur barik estutzale basatia da.

Eurak geureganatuteko euren adimenetan irarita dagozan irakatsiak ...ratutia nai ta nayezko yaku; euren biotzen maitasun ustelak ezetsi ...gara; ames zoruak deuseztu ta lureko maitasun ta ixatien gain dagozan ...tasun eta ixatiei begiratu eragin; beko gudearen ordez goi-maitasuna ...Maitasunean eta irakaskintzean dago gaurko zoritxaren akatza. Gixonak ...tzetan gastiak zirala maitasun apur bat irari ixan ba'zan gaurko goroto ...asarerik egongo ete?

Gastiekana begiratu dagigun. Baña maitasunez begiratu. Ideak dira-...tagigun iñor goroto, kupigari geyago dira ta gorotogari baño. Eurekana ...gaitezan ta itz biotzik-biotz, maitasun bixiz, gastiei yaoken lez. Maitasun ...maitasunaz erakusten da. Eta eurak maitasun egari dira; egiaren egari.

ZIÑESTU BAKARIK EZ.—Alper gatxez jota gagoz. Elburu zuzenak ...tutia lortu dogu; geure uste gustiak euretan irari doguz, ziñesmen osoa ...tan imiñi. Baña ziñesmen orek eginbiarak leporatuten dauskuz. Ziñesmen ...ixatia ezta naiko; ziñesmen ori zabaldu ta irakatsi biar da. Ziñesmendunen ...ñera ziñesmen oren beldun ixatia biaresko.

1927'ko aziia'n zan. Clichy'n, Paris onduan, J. O. C.'k langile bazkide ...miia ta bereun langile gaste bulartsu ta adoretsu batzartuta egozan. ...amaitueran euren idazkari nagusiak oju egin eban: Lagunak. Frantzia'n ...bat eta bereun miia gaste langile dagoz. Gertu ete zagoze langile lagunak ...re elbururako irabazten? Geure ziñesmena eurei adieraztia nai ete dozue? ...neko lagunak diran gaste galduak kistar biurtu gura ete dozuez? Eta ...men sendodun gaste arein estarijetatik urteten ziran abots lodi-gordiñak ...bidar beresaten eben: Bai! Bai!

Gaste areik euren itza bete eben. Gaur J. O. C.'bazkuna indartsu ta ...ezagututen dogu.

Belguntza oro gatxak diranik eztogu ukatuko. Ariskuz josita dagoz ...eta ainbat gaste euretan gogotsu ta gartsu sartu-aren makalduta, ...ler eginda biurtuten dira, edo arerioen menpian jausten dira. Baña ori ...geure zeregiña bete barik lagako ete dogu?

AURERA!—Coppee'tar Pantzezka idazle argi ta ugariaren lan ...bururatuten yat. "Itxas-lorak" deritxo.

Gai-mutila gastetxu bixkor ta joria da, oraintsu itxasuak iruntzi dabe ...-gixon erime baten semia. Ama alargunak negarti ta itunez semioi bular ...estututen dau eta itxasua erakutsiaz, aren eskatuten dautso itxas-gixon ...ames ta ustiak galdu dagiazala. Egia ezta, ba, enetxu, gixonak iruntzian ...zan itxaso zakar eta biotz bako oren baruna etzarila geyago sartuko? Eta ...bere onduan daben seme bakar kutunari itxasuaren kalteak agertu ta ...kak edestuten dautsozala ekaitz gogor ta ikaragari bat sortu ta jagi? ...Portutik laster, ara betera, itxasontzi txikitxu ta azal bat lari dabil, ...datuko.

Ikusten ene seme?, diñotso amak keskati ta urduri negararen negar ...ritutako begi makalduetatik malko lodiak bere arpegi ziar jaurtiaz. Ai ...obarik nai? Ikus itxas-gixonen ariskuak. Geyago itxasoratuko, ene kutun.

Itxas gixon odola zanetan daruan gaste itxastara ixilik dago; oldo ...lotu da. Eta amaren arenei men-egiteko dagola itxasoarea uin indartsu ...ratatsuak ondar ertzera jaurti daben eguriari adi-adi lotu da. Zer ikusi ...igarten ete egur oretan ain zurbil ta lari jarteko? AURERA! Bere aita ...nian ebilan itxasontzi trixkatu ta ondatuaren ixena. Ezin daike ezpayan ...amaren aren biozkorak eztabe atzeratu talegorian geldituko. Atiaren ...darua ta itxas-gixon egingo da. Eta bat-batez amaren atzaparetatik ...estu dabilen ontzia gaizkatuten portutik urtetera duan lagantza-itxasontzi ...sartu ta itxasora dua olatu artian eriotziagaz burukan dabiltzan erukar ...guntzen eskiñi ta eruaten.

Itxas-gixon gaste oren irudia geure irudi ixan biar dau. Itxasuak jaun ...egurären ixena geure didara.

Lana astun eta itzala da. Zoro antzera itxurik duazan gastien bila ...daroen bidia saratu ta bide zaretara biurtutia ezta ereza. Euren biotz ...irarita dagozan goroto ta itxutasuna ezerestu ta argitutia ekintza ...etenkora da. Bakar-bakarik gastien eskuetan dago ekintza ori aurera ...garaile urtetia. Biotzez ta gogoz gaste ixan biar da oretarako. Biotzez ta ...gaste ixatiak gastedien burukan garaile urteteko biar biaresko diran ...eta jakintzearen jaubetasuna erakusten dauz.

Maitasuna ta jakintzea. Ara or gastedi galduak erakarteko bidea ...ta erezenak. Eziña ixango ete ikuritz bitsuon ikuriña gastedi artian ...

Olan ba'litz geugan gastetasunik eztagolako litxake, areriuak baño ...aul eta koldartiago garalako litxake.

Baña ez ete gara eurak baxen gaste?

ARTEL

Gatza'ren matxinadia

"¿ZEGAITIK BIXIJA KENDU EUTSIEN?"

Gaur orija'n 24'garenian ospatuten dira 302 urte erijotzea emon eutsiela Bizkatar zintzo-zintzo ta azartubak ziran Axorabide. Morga ta Puente'tar Jon, espetxe edo kartzela-baruban, eta bijaramonian 25'garenan Larabaster eta Bizkaigana anaya bijai. Azkenengo irurok Plaza-zarean bijarko egunez urkatu ebezan.

¿Zegatik bixija kendu eutsen? Ez kriminalak ziralako, ezpabe, Bizkaya 'ren aldez ta Bizkai'ko jaunaren aurez jari ziralako baño. Onexek ziran orduko abertzaliak.

Bizkai'ko jaunak España'ko erege ta era batera zanak, Bizkaya ostikopetu gura eban, bere Lagijakaz batera. Baña orduko geure aldezliak geure erija ondo zainduten jakin be, ta, gogor jari ziran onen aurka, eta geure aberi mate onen aldez ipiñi ebezan euran gogo eta bixija.

Geure aldezle bijoztunok españaren zitalkerijan aurka geure lagiak iñok ostikoperatu eztedizan agertu ziran, baña abenda-erailtzale beti agertu diranak orduban be, erailtzia aurretik jarita agertu yakuzan ta erailtze deunge ta itxala aurera eruan eben.

Orduban, be, bai-egozan Bizkaya'n gaur dagozan kirten eta lotsabakuak, onek orduban egin eben laguntziari jarajuteko gertu egongo litzakez, baña abertzaliok agiñak erakutsi biar dautseguz.

Bizkatarak, euzkotarak... ikasi egixubez eta euki goguan 1634'garen orija'n 24 ta 25'garen egunetan Bizkaya 'ren aldez euran bixijak galdu ebenen ixenak; bata igesi al ixan eben seirenak be.

Gatza'ren salerosmena edo gatza erosteko ez eben eskubidia, artu gura eban bakaldunaren "koregidoriak". Bizkatarak au jakin ebenian gustiz asaratu ziran, agindu ori Bizkaya'ren kalte aunditzat etori be, ta. "Kanpora kaltza-baltzak" didaragaz erabagi kaltezko aren aurka geure gixonak jari ziran. Gixon kementsu ta gomutagarijak onexek ixan ziran:

Aulestia, sindikua.
Axorabide, idazkarija.
Morga, lagi'z-jakintsuba.
Belendiz, idazkarija.
Larabaster, eskribaua.
Arauko, eskribaua.
Armona, jauparija.
Bizkaigana, bi anayak.
Puente, bi anayak.
Txarta, joslarija.

Gixon-gexotik lotan egozala eruan ebezan espetxera. Axorabide, Morga, Larabaster, Puente eta Bizkaigana anayak.

Egun [illegible] n gau atan emon ebezan Bizkaya'ren aldez Axorabide, Puente eta Morga'k, bijaramonian Larabaster ta Bizkaigana anayak emon eben-aren. Beste enpaidubak at egitia lortu eben, eta oretara gaizkatu ziran.

Erailtza koldar onek benetan irakiitxen dauz gaur be, gure goguak. Eurok geure aberija aldeztu ebelez, aldeztu biar-dogu geuk be aldija yatorkunian.

¡Aintza euzko-abenda eredugari ziran gixon ori! ¡Aintza ta aintza euzko-abenda bijoztunori! ¡Gomutan beti euron gixontasun ta euzkotasun ereduba!

Ogoñope.

'rakurri EUZKADI

ERRIJETATIK

MAÑARI

JUAN ETORIJAK. — Abadiano'ra juan ziran Betia'tar Pudentzene, Bitore ta Karmele neskatuak.

—Larabetzu'ra osteratxu bat egin eben Barenetxea'tar Polentxi abade jauna ta Aretio'tar Gotzon osagilia.

—Bilbo'ra juan zan Belakortu'tar Kandide andera.

—Lengo astian egon ziran emen, Betia'tar Mariñe ta Aretioaurtena'tar Susane emakume begikuak.

—Igandez egon zan, Ibara'tar Erupin abade jauna, emeko txaunburua ixanikua.

—Bilapranka Napara'kotik etori zan Simeon Ata karmeldar lekaidia.

—Lengo egun baten agurtu gendun "Aritokieta" idalesme argija.

—Zaldibar'tik etori zan Untzalu'tar Miren andera.

—Zeanuri'ra juan zan, bere gurasuak ikertuten Kanpo'tar Joseba mutil gastetxu zolija.

GEXORIK.—Goti'tar Erose neskatotxu polita, egunontan gexorik aurkitzen da. Beroni, osasuna bijotzez opa dautzagu.

ARENTZAK.—Urtero egin oi-diran arentzak, erogatibak, emen be, aste ontan egin dira. Deunen arentzak elizpian abestuta gero, meza entzuten basotxonuetara juaten ixan gara. Euretara lagun-askotxo erduten ixan gara, ta gustijak be basorik-baso pozik ibili gara.

Astelenez, Martin deunaren basotxonuan mezia entzunda gero, lagun batzuk. basotxonuaren azpiko artzulora juan gintzazan. Eta, bertan, ortikoz -emetikoz apur bat ibilita, txori-piluak, saguzarak, arapau genduzan. Orduan ¡umien poza! Txorijari baña, olan biarik, gatzik arian be ez-geuntson egin.

Beñolako "praka-gorijak" be ikusi gura ixan genduzan; baña an, praka -goririk, sorgiñik ez euren aztarenik be ezgendun ikusi. Mezia entzunda juan gintzalako edo, bilduf ixango ziran agertzen...

EURIJA.—Orija. betozko-iiunez negarti yabilku. ¡Onako euri jausterik ikusteko be! Ori dala-ta, lugiñak, soluan ezotarako be arorik eztagoala ta, artega dagoz. Egoteko da...

Luzarotxuan onan jarai ba-dagi, aurtengo artuokaz kamarak batekada andirik eztabe ixango.

Emeko "erdi-astronomo" batek esan euskun lenguan, orija gustija, ta bagilaren zati bat onan igaroko dala...

JAI-ABERKOIRA.—Igandez, Ermua 'n ospatuko dan jai aberkoira, emetik be (J. L.) ainbat aberkide juango dira. Bertan itz egiteko diran izlari ospetsueri entzuteko gurarija ba-dago ta.

Egun oretan, "Abeletxe" euzkel-idazle azkara bai ibiliko dala pozik...! A ibiliko da ibiltekua...!

Mañariko.

GALDAKANO

Oztetza andijakin ospatu ziran (EUZKADI'ko irakurliak jakin dabenez) Usansolo'ko auzonean San Miguel eta Oyarzabal'dar Iñaki (G. B.) zanaren oroimenezko jayak.

ZEGAITIK?—Aspaldijon gagoz Bizkai'ko Batzoki batzubetako txeiguetara begira ia noiz ikusiko dogun geure ikurin matia, baña alperik, eztogu euzko-ikuriñik ikusten. Onetariko bat Gomuzio'kua. Zegatik ete da? Bilduragatik? Edo geure menperatzaliak esango dauskubelakuan euzko-ikuriña noiz eskegi? Ezkadixan egon olako asmuetan, españarak ori agindu-arte egongo ba'gintzaz, ba, zitzak jango leukez ikurin gustijak.

EZKONTZAK.—Igaro zan astian ezkondu ziran eri onetako ertxadonean Sagardui'tar Erapel eta Etxebaria'tar Elene, geure adizkide onak baxen abertzale zinduak. Atzerira juan ziran ibiltaldija egitera.

Bata egunotan ezkonduko dira Artetxe'tar Pirmin (Gomuzio'ko batzokiko artezkari-bazkintzakua) eta Artetxe'tar Miren, neska-mutil abertzaliak. Gustijoi zorijonak bijotzez.

KIROLAK.—Etxebari, 1—Gaste Gogua, 0. Igande aratsaldez jokatu eben Zuatzo'ko landan. Geure ustez Gaste Gogua aldrakuak asko geyago jokatuten dabe, baña ori ta gusti, be, galdu biar-ixan eben.

Basakiña.

Uara.—Astekua otzaran sartu genduban, eri lartxu egozan-eta. Orek erderazko eri-izparok kendu biar-ixango doguz, osterantzean toki gitxi daukogu. Tamalgarija.—L.

MENDARO

IXIDOR DEUNA.—Uritxo onetako nekazariak euren Zaindari Ixidor deunaren eguna ospatzeko, mordoxka bat Elgoibar eratu ziran. Osopozik etori ziran ango jayak ikusi-ondoren. Ederki.

MADARIAGA'N. — Igandian egin zuan eguraldi txaragaitik mendarotar gutxi izan ziran Madarixa'ko mendian.

EZKON-DEYETAN.—Ezkon-geyetan arkitzen dira gure lagun ta euzkel-idazle, Berazaluze'tar Luki, "Argi-zale" eta gure antzeztaldeko andereño lirain-polita dan Iriondo'tar Josebe. Zorionak aurez.

NASKALDIA.—Beasain'dik gure uritxora bizitzera etori dira Galparsoro 'tar Joseba osagile sendiaren sendikoak. Ongi etori.

ERMU'RA.—Ermu'ko anayak euren Gurenda-Etxea'ren zabalgundea dutela-ta, datoren iganderako izugarizko jai aberkoiak antolatu dituzte, batez -ere aratsaldeko itzaldi edera, bertan itz-egingo dute "Altzeta", "Lauaxeta", Montzon eta Agire'tar Joseba Andoni 'k. Nor geratuko ote da itzaldi eder aiek entzutera joan-gabe?

ABERI-EGUNA.—Gure uritxo onetako abertzaleak aundikiro ospatutzekoan gera Aberi-Eguna Jaien egitarau urengo idazkian emango dizuet. Uren arte, Goikua lagun.

Kaiku.

ZALDIBAR

ERMUA'KO GURENDA ETXIA 'REN ASKUNDIA.—Gaur iganderako iragari dauskube Ermu, auzo - uriko abertzale trebe-trebiak, euroek ainbat ames-ixan daben egun zoragarija.

Datoren igandian, Ermu'ko abertzale zintzo oreik daben egun zoruntsubatzaz eztogu une txiki bateko oldozmenik be.

Benetan. ezta aritzekua zorijoneko ixatia ainbeste neke ta irañekin arerijoen goroto zitalak menperatuta aldi luzian euki dabenentzako.

Baña gaur, Ermu'ko abertzale bulartsubak, jaso dabez euroen bo... Lenengo maian, aberi gustija ...eben gurendea udaletxeratziaz ...ondoren lortu dabena ez da tx... Euzkadi'ren gaztelua jaso, E... abertzaletasuri ta nabaitzen ...Euzkadi'ko azkatasunari dagokiyo ...eztitsuba ezari: Gurenda-Etxia.

Datoren iganderako eraldu ...jayak, guretako atsegin badira ...bat geyago ixango ete-dira ...oreintzat, guk, jai oretan biarko ...gozan lez besarkatzia!

Zaldibar, gaz bixijan dago b... tzeko ta bai dezu uste dogu an ...dirala Bizkai ta Gipuzkoa'ko ba... gustijak.

Ermu'ko abertzaliak, gure ...irabazita daukoe. ¡Ordaindu d... datoren igandian!

Azkorr...

Gaur Ermua'n

Gaurko jai-aberkoirik urtenena, garantzitsubena, Ermua'n ixangozu irakurle. Egun andija ospatuten dabe gaur ermutarak. Euren Gurenda-Etxia 'ren zabalgundia.

Gaur 28 urte, lenengo Batzokija'ren zabalgundiaz asi eben burukа gogoraren gurenda-eguna.

Eta ain egun goguangarija ospatuteko, lauaxetara jaurtin daben deyari erantzunaz, Bizkai ta Gipuzkoa'ko abertzale-taldiak Ermua'rako bidiak ziartuko dabez, an arnasatuko dan Aberi-eguratzaz bularak zabaltzeko, an ixango diran euzko-eresi ta dantzaketeaz bijotza alatuteko ta an entzungo dan itzaldi andijaren bidez goguak sendotuteko.

Euzkadi'ri zor yakon azkatasun zabalosua bijurtu dagijoguntzat, goguak sendo biar, ba, doguz-eta.

Bai-dakixu ba irakurle, batez be Ermua ingurukua zaran orek, gaur nora jo biar dozun, ainbeste onura zeuretzat eta aberijarentzat idoroteko. Bai-dakixu, Aberijak, gaur, nora dei dagitzun, eta bere deyari entzungor egin barik, atxakija gustijak aldebatera laga-ta, zuaz Ermua'ra anaiasunian na igarotera.

EGITARABA

Goxeko saspiretan.—Jaupa ixilko abertzalien gogo-aldez, eta ...ren Jaunartze orokora.

Amaretan.—Jaupa nagusija ...kiko abesbatzak abestuta Valdi... Juli'ren "Angelis" abestuko da.

Amabijetan.—Ezpatadantzari ta ...rularijen dantzak Cardenal Or... enparantzan.

Ordu batian.—Oturantza, E. A. agindarijak buru dirala.

Iru ta erdijetan.—Itzaldi-aberk... izlari ospetsu oncin gain:
Linazasoro'tar Karla "Altzeta".
Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta".
Monzon'dar Telespor (aldun ...kua).

Agire'tar Joseba Andoni (aldun ...
Bertsolariren bat be ixango da.
Ondoren bidezkunde (eforerija) ...parantzan, saspi ta erdijak arte ...auferantz, Batzokijan.